



## FAMILIA HARRERA – “IKUSGAI(TZAT) KANPAINA

### Harrera egin nahi duten pertsonak eta familiak behar dira

Gure inguruan haur eta nerabe batzuk ez daude haurtzaro edo nerabezaro normal batez gozatzen. Uste baino gehiago dira. Eta behar baino gehiago sufritu dute: aldaketa zorrotzak, bakardadea, beldurra, ziurgabetasun handia. Hainbat arrazoiengatik familiekin bizi ezin diren haurrak eta nerabeak dira.

Horietako batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapeko harrera-zentroetan bizi dira, eta, egunero arreta ematen dieten profesionalak behar bezala artatzen badituzte ere, ezinezkoa da familia batean ematen den berotasuna sortzea. Izan ere, 3, 8 edo 13 urte dituzunean, bizi beharko zenukeen leku bakararra etxe batean, familia batekin izan beharko zen, ume normal bat bezala.

Familietatik urrun bizi diren haur eta nerabeek gabezia asko dituzte, baina, guztien gainetik, maitasuna eta onarpena behar dituzte, IKUSGAITZAK izan gabe. Eta ez dute balio hainbeste gautan lagun izan dituzten peluxe edo panpina zahar horiek besarkatzearekin, hezur-haragizko besarkadak behar dituzte. **ZU BEHAR ZAITUZTE, ZUEK.**

#### 1. Zein haur hartu behar dira?

Bere profilak oso ezberdinak dira, baina guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean daude. Honako hauek izan daitezke:

- Haurtxoetatik nerabeetara
- Bakarrik dauden haurrak, edo elkarrekin mantendu nahi diren anai-arreben taldeak.
- Portaera-zailtasunak izan ditzakete, bizi izan dituzten esperientzia negatiboengatik

#### 2. Zer da harrera-familia izatea?

Laguntzeko modu bat da (haur edo nerabe bati) zure familian onartzea:

- Heziketa ematea, eta maitasuna
- Zure familian integratzen laguntzea eta familia-giroan bizitzeko aukera ematea.
- Nondik datorren zaintzea, maitatzea eta errespetatzea
- Bere familiarekin zergatik ez dagoen ulertzen eta berarekin harremanak izaten laguntzea, betiere beretzat ona bada.

Harrera ez da adopzio bat, ezta horretara iristeko urrats bat ere. Ez du bilatzen haurraren familia ordezkatzeari, une oro errespetatu behar baita.



### 3. Familia harrera motak

Harrera-familia mota desberdinak daude, eta zein izan nahi duzun aukera dezakezu, zure eskuragarritasunaren eta prestaketaren arabera.

**Gipuzkoan familia-harrerarako bi programa ditugu:**

#### Borondatezko familia-harrera

Pertsona edo familia batek, kualifikazio berezirik izan gabe, bere burua eskaintzen du haur edo nerabe bat (edo bat baino gehiago) hartzeko, eta bere gain hartzen du hura zaintzeko eta artatzeko erantzukizuna, profesionalen laguntzarekin harreraren hartutako adingabearen ongizatea bermatzeko.

#### Familia-harrera espezializatua

Modalitate horretan, harreragileak edo familiako kideetako batek berariazko kualifikazioa, esperientzia eta prestakuntza ditu behar bereziak dituzten haur eta nerabeekin babes-eginkizunak betetzeko. Harrera bere lan profesional bihurtu nahi du, dedikazio osoz (nahiz eta egoera jakin batzuetan bateragarria izan daitekeen beste lan bat egitearekin), eta, horregatik, ordainsaria jasotzen du, harreraren hartutako adingabearen ongizatea bermatzeko laguntza ematen dion talde bateko kide izanik.

**Eta, harreraren aurreikusitako iraupenaren arabera, honako hau izan daiteke:**

- Larrialdikoak (gehienez 6 hilabeteko iraupena)

Berehalako arreta behar duten haurrentzat da, eta oraindik aztertzen ari dira beren familiekin itzuli ahal izango diren. Hori baloratzen den bitartean, eta gehienez ere 6 hilabetez, haur horiek larrialdiko familia horiekin egongo dira.

- Aldi baterakoa (2 urtera arteko iraupena)

Haur eta nerabeen familiak, laguntza profesionalarekin eta horretarako lan eginez, seme-alabak ondo zaintzeko gai izan daitezkeen kasuetarako. Horregatik, aldi baterako harrerako familiek haur horiei laguntzen diete denbora horretan (gehienez 2 urte), beren familietatik kanpo egongo baitira, eta zaintzen dituzte, eta beren familietara itzultzeko prestatzen laguntzen diete.

- Iraunkorra (iraupe mugagabea)

Ikusi denean haurrak ezin izango duela familiarekin itzuli, haiekin askoz denbora gehiagorako egon nahi duten familiak bilatzen dira. 18 urtera arte iraun dezake.



#### 4. Nor izan daiteke harrera-familia?

Abentura honetan murgiltzeko prest dagoen edozein pertsona edo familia.

Hori bai, beharrezkoa da:

- Familiako kide guztiak ados egotea
- Haurrak edo nerabeak etxean nahikoa leku izatea
- Nondik datorren errespetatzea eta bere ohiturekin eta familiarekin onartzea (izan ere, gehienetan familiarekin harremanak izaten jarraitzen dute bisitekin).
- Haurren eta harreraren bilakaera une oro jarraituko duten profesionalen laguntza onartzea, gerta daitezkeen zailtasunak gainditzen joateko laguntza emanez.

Gainera, harrera espezializatuaren kasuan, bete beharreko baldintza batzuk daude:

- Diplomatura, lizentziatura edo gradua izatea Gizarte Hezkuntzan, Irakasletzan, Erizaintzan, Medikuntzan, Pedagogian, Psikopedagogian, Psikologian, Soziologian, Gizarte Langintzan, Gizarte eta Kultura Antropologian, edo, halakorik ezean, unibertsitatez kanpoko beste prestakuntza-gradu batzuk edo osasun-arloarekin, gizarte-komunitatearekin edo gizarte-hezkuntzarekin lotutako titulazioak.
- Gutxienez bi urteko esperientzia praktikoa izatea adingabeen arretarekin, zaintzarekin, hezkuntzarekin edo babesarekin lotutako eginkizunetan.
- Prestakuntza espezifiko osagarria izatea, egokia izango dena eta familia-harrerak behar edo egoera bereziak dituzten adingabeei dakartzkien erantzukizunak betetzeko gaituko dituen, pertsona harreragileek haurren edo nerabearen interes gorenari erantzuteko beharrezkoa den laguntza eta arreta espezifiko (errehabilitatzailea, terapeutikoa edo beste mota batekoa) eman ahal izateko.
- Herreran hartutako mutilaren edo neskaren arreta bermatzeko prestasun osoa izatea.

#### 5. Eta bere jatorrizko familia?

Haurrak edo nerabeak familiarekin bizi ezin izateak ez du esan nahi familiarekin harremana galdu behar duenik. Horregatik, harremana haurarentzat edo nerabearentzat ona bada, familiarekin bisitak egingo dira. Horrela, familiarekin lotura izaten jarraituko da eta, ahal izanez gero, familiarekin itzultzea erraztuko da.

#### 6. Esan dezaket zer haur edo nerabe mota egokituko litzaidakeen niri? Aukeratu dezaket?

Harrera-familiak erabakitzen du azkenean haur jakin bat hartzeko proposamena onartzen duen ala ez.

Baina familia-herreran esku hartzen duten profesionalak baloratuko dute, zuekin egindako elkarrizketetan jasotako informazioa kontuan hartuta, zein haur edo nerabe sar daitekeen hobeto zuen familian.



## 7. Laguntzarik izango dut?

### Beti !!!

- Profesional-talde bat izango duzu, zure harreraren gertutik jarraituko duena, zure alde eginez eta harreraren sor daitezkeen zalantza guztiak argitzen lagunduz.
- Profesional horiek beharrezko erabakiak hartuko dituzte haurra edo nerabea eta zuek ondo egon zaitezten, eta harreraren une zehatzetan edo haurraren edo nerabearen behar zehatzetan lagunduko dizuete.
- Haurra edo nerabea edukitzeak eragin ditzakeen gastu ohikoenetarako laguntza ekonomikoa ere jasoko duzu, baita kasu zehatzetan aztertuko den laguntza bereziren bat ere.

## 8. Eta harreraren zerbait gaizki badao?

Zuen alde egongo den taldeak sor daitezkeen zailtasunak gainditzeko lagunduko dizue.

Baina zerbait ondo ez doala ikusiz gero, kontaguzko lasaitasun osoz, eta profesionalek behar diren erabakiak hartuko dituzte haurraren eta zuen familiaren ongizatea lortzeko.

## 9. Nolakoa izango litzateke prozesua?

Familia-harrerari buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzu,

- [gipuzkoa.eus/familia-harrera](http://gipuzkoa.eus/familia-harrera) webgunean aurki dezakezu
- Telefonoa: 943 112 522
- edo emaila: [familiaharrera@gipuzkoa.eus](mailto:familiaharrera@gipuzkoa.eus)

Familia-harrerako gure programak kudeatzen dituzten taldeekin ere jar zaitezke harremanetan

### Borondatezko familia-harrera

LAUKA Ikerketa eta Esku Hartze Psikologikoen Zentroa

Telefonoa: 943 457 740  
Emaila [lauka@lauka.org](mailto:lauka@lauka.org)

### Familia-harrera espezializatua

AGINTZARI-Familia Harrera Espezializatuko Programa

Telefonoa: 943 54 44 97  
Emaila: [pafe@agintzari.com](mailto:pafe@agintzari.com)

---



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Gizarte Politiketako  
Departamentua



Diputación Foral  
de Gipuzkoa  
Departamento de  
Políticas Sociales



## **BEROA Gipuzkoako Familia Harreragileen Elkarte**

Informazio gehiago nahi baduzu, Gipuzkoako Familia Harreragileen Elkarteak (Beroa) informazio gehiago eman diezazuke zuzenean. Hemen dituzu harremanetarako datuak.

<https://asberoa.com/>

Telefonoa: 943 24 56 04

Emaila, [asociacionberoa@asberoa.com](mailto:asociacionberoa@asberoa.com)

### **10. Lagundu al dezaket beste moduren batean?**

Agian, harrerako familia izatea ez da zurekin eta zure familiarekin ondoen egokitzen dena, baina badaude beste modu batzuk haurrei eta nerabeei laguntzeko. Jarraian, laguntzeko beste modu horiei buruzko informazioa eskura dezakezu.

#### **Familia laguntzaileen Izeba proiektua:**

Izeba Proiektua familia- edo pertsona-sare gisa eratzen da (etxeak), tutoretzapeko adingabeen osaba-izeba hartzaile gisa jardutea onartzen dutenak, bai atzeritarrak bai bertakoak, haien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

<http://baketik.org/web/que-te-ofrece.php?idioma=eu>

Telefonoa: 943 25 10 05.

E-posta: [izeba@izeba.org](mailto:izeba@izeba.org)

#### **Eskutik Programa Gurutze Gorria**

Bolondresen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako 7 eta 12 urte bitarteko haurrentzako laguntza programa

Deitu 943 22 22 22 zenbakira astelehenetik ostiralera 8:00 - 15:00ra

E-posta: [voluntariadogipuzkoa@cuzroja.es](mailto:voluntariadogipuzkoa@cuzroja.es)

---